

• HELDUTASUNA •••

Eta orain sagardoa botilan


Sagardo desberdinak aurkitu ditugu, baina orokorrean pixka bat garratzagoak

Urtero bezala, apirilko azken egunekin agur esan du txotx denboraldiak, baina zorioenez, botilako sagardoa geratzen zaigu. Ez da gutxi. Hurrengo hilabeteetan gure edari naturala botilan izango da nagusi. Sagardo freskoa, pittin bat azidoa eta garratza edo taninoduna, baina orekatua, harmonikoa, eta batez ere, beti ona.

Sagardoazale asko penaz geratzen dira, sagardoa giro ederrean eta menu on batekin dastatzea erakargarria baita. Hurrengo urtarrila iristea baino ez da geratzen sagardo berria probatzeko, baina horrenbeste itxaron gabe, botilan kontsumitzeko aukera dugu. Ez da aukera txarra; alderantziz, sagardo askok, txotx denboraldian oraindik heldu gabeak, bere punturik onena botilan lortuko dute.

Aurten gainera, oso goiz heldu ziren sagardoak dastatzeko aukera egon da; baina beste batzuk, ordea, prozesu mantsoagoa izan dute, eta txotx garaian berde xamarrek zeuden eta orain hartuko dute heldutasuna.

Zein motatako sagardoa aurkituko dugu botilan? Arantza Eguzkitza, Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakariaren iritziz «sagardo desberdinak aurkituko ditugu, baina orokorrean pixka bat garratzagoak dira eta esan daiteke, iazkoak baino tanino gehiagokoak. Bodega batetik bestera asko aldatzen da sagardoa, baina hori izan daiteke ezagarri komun bat. Azido maila egokia duten sagardoak dira



Sagardo askok, txotx denboraldian oraindik heldu gabeak, bere punturik onena botilan lortuko dute
Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

–aipatzen du–, nahiko borobilak eta edateko atseginak».

Txotx denboraldiaren lehen balorazio batek baikorra izateko arrazoiak ematen ditu. «Balorazioa nahiko ona da, bizi dugun krisi egoera kontuan hartuta. Azken urteetako bezero kopurua mantendu da, ezagutzen zen tendentzia baieztatuz, asteburuetan ghituz, larunbat eguer-

dietan batez ere, eta astean zehar gutxituz. Gure upategietara etorri direnei eskerrak emateko arrazoi asko ditugu», onartzen du Arantza Eguzkitzak.

HURRENGO UZTARI BEGIRA

Oraindik aurtengo uzta edan ez eta, dagoeneko hurrengora begiratzen ari dira. Aurtengoa sagar uzta oparoa izan liteke.

Azkenekoa baino oparagoa behintzat, sagarrondoak bereziki bi urtean behin ematen baitu uzta ederra gure herrian. Iazkoa oso urria izan zen eta aurten alderantzizkoa tokatzen da.

Horrez gain, beti bezala eguraldia kontuan hartu behar da, eta aurtengo neguan nahikoa hotz pairatu edo, hobeto esanda, pilatu dute sagarrondoak.

Eta hori ona da loraldia baterago edukitzeko. Apirilean hasi ziren sagarrondoak loratzen, eta erieek beren lana burutu dutela pentsatu behar da. Lore asko kimatu zirenean eta badirudi loreak sagarra hartu duela. Loraldiak irauten duen hamar bat egunetan, eguraldiak zerikusi handia izaten du. Teknikarien ustez euri eta haize gehiegi ez egitea komeni da erieek beren lana egin eta polinizazioa egokia izateko. Baldintza hori gutxi gorabehera bete sen. Nahiko eguzkaldi on eta baretua izan zen egun haietan.

Uzta ona lortzeko, hurrengo asteetan sagastiak ondo zaindu behar dira. Horretarako karpokapsa edo harraren kontrako tratamendu egokia jarri behar da eta beste tratamendu bat zorriak agertzen badira. Inausketa berdea egitea ere komeni da.

Uztz ditzagun sagarrak ongi hazten sagastietan eta goza dezagun aurtengo sagardoarekin. Udara da, agian, urte-saso egokiena gure edari naturalarekin, bere freskotasanarekin, une lasaiak izugarri ondo pasatzeko. Sagardo botilaren unea iritsi da.



LIZEAGA

Sagardotegia | Astigarraga | © 943 468 290

Lizeaga Sagardoa, hori gozamina!

edan eta eman edatera